

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019)

Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Sektore-bilera: HEZKUNTZA
Eguna	2016-11-07
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Iruñea, NAPI egoitzan

Bertaratutakoak	
Iñigo Orella (LAB-Ikastolak)	Xabi Garcia (AEK)
Luis Antonio Escala (Concapa)	Angel Gartzia
Imanol Nuñez (NUP)	Kepa Yecora (Steilas)
Sergio Iribarren (Sortzen)	Imanol Haranburu (Iruñeko Hizkuntza Eskola)
Josema Mendez (Beriaingo Udala)	Marian Antoñana (Nafarroako Gobernua – Hezkuntza Departamentua)
Alfonso Muruzabal (Irakaslea)	Yolanda Olasagarre (EIBZ)
Maite Ariztegi (Elizondoko Lanbide Eskola)	Julen Aranguena (Lizoain-Arriasgoitiko Udala)
Aitor Lakasta (Nafarroako Gobernua – Hezkuntza Departamentua)	Isabel Aranburu (Geroa Baiko parlamentaria)
Txaro Etxetxipia (irakaslea)	Luis Angel Lizarribar (NIZE)

Euskarabidetik: Esther Mugertza eta Kontxi Del Rio.

Elhuyarretik: Jon Abril

Gai zerrenda

- Ongietorria
- Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea
- Sektorekako lanketa: elkar ezagutzea eta talde-lana
- Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Euskarabideko Paula Kasaresek egin die ongietorria hurbildutako eragile guztiei. Ongietorria eta Planaren aurkezpena modu bateratuan egin ditugu, euskara eta hezkuntza arloko eragileak elkartuz. Paulak Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu ditu lehenbizi, eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Jon Abrili eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, sektoreka banatu gara eta sektore bakoitzeko eragileak gela desberdinetara joan gara sektorearen lanketa propioa egiteko.

Behin arlo bakoitzeko eragileak elkartuta, elkar ezagutzeko izen-erronda egin dugu. Jarraian, euskara alorrarekin erlazionatzen diren helburuen dokumentua banatu dugu (10 helburu jasotzen dituen) eta talde txikian honako galderen gainean jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan botatzen duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?

	HEZKUNTZA
1.1.	Euskararen gizarte erabilera handitzea, erabilera sustatuz eta hizkuntza ulertzen badute ere mintzatzeko ohiturarik ez duten hiztunak aktibatuz.
1.2.	Euskaraz eskolatu diren gazteen harreman ez-formaletan eta lagunartekoetan euskararen erabilera handitzea.
1.5.	Eskolaz kanpoko jarduerak eta, oro har, aisialdi antolatuen esparruak haur-gaztetxoek hizkuntza portaeretan duen eraginkortasuna hobetzea, beraien artean euskaraz egiteko ohitura sortu eta sendotzeko.
2.1.	Eskolan euskara ikasteko aukera nafar guztiek eskura izatea, haurrak euskaraz eskolatu nahi dituzten familiek aukera hori bermaturik izan dezaten eta ikasleek hezkuntzako goiko mailetan ere euskaraz ikasten jarraitu ahal izan dezaten.
2.2.	Haurrak eta nerabeak euskarazko hiztun bilakatzeko eta euskaraz sozializatzeko prozesua sendotzea eskolaz kanpoko arloetan, batik bat aisialdi, kirol eta kultura jardueretan; haur-gaztetxoek euskaraz berez, aise eta eroso komunikatzeko.
2.3.	Familien barneko harremanetan euskararen erabilera handitzea, euskaraz eskolatzen diren haurren eta gurasoen arteko harremanetan euskara sartzea, horiendako guztiendako hizkuntza ikastearen eta erabiltzeko motibazioaren indargarria izateko.
2.4.	Helduen euskalduntzea Nafarroa osoan bermatzea euskara ikasi edo hobetu nahi duen orok egin ahal izan dezala baldintzarik hoberenetan, hiztun aktibo bilakatu bitartean laguntzen zaiola.
2.5.	Kanpotik Nafarroara etorritako herritarrei euskara ikas dezaten sustatzea, eta horretarako modua ematea, haiek eta haien seme-alabek euskara lagungarria izan baitezakete bertakotzeko eta bizimodua hobetzeko.

4.1.	Euskararen irudia eta prestigioa hobeki kokatzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz.
4.2.	Euskara bere errealitatetik urrun sentitzen duen populazio nafarrari hizkuntza hori hurbiltzea.

Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa.

Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Nafarroa osoko herri eta auzo guztietan ikasle guztiek euskaraz ikasteko eskubidea bermatu, baita behar bereziak dituztenak ere.
- Ahozkotasuna gelan era sistematiko eta jarraituan landu.
- Hizkuntzaren atxikimendua landu.
- Irakasleei formazioa eman erregistro guztietan (formal/ez formalean).
- D ereduaren kalitatea landu eta zabaltu.
- Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta gradu unibertsitarioak euskaraz egin ahal izatea Nafarroa osoan.
- D ereduaren eredu bakarra Nafarroa osoan.
- 2017an G ereduko ikasleei DBH A ereduaren egiteko eskaintza luzatu, 4 urtean B1 maila lortzeko helburua jarritz.
- 2.1.2. puntuan, hizkuntza-proiektua baino, hizkuntzen proiektua behar luke, euskara ardatz dela, edota ezinbesteko alboko hizkuntza moduan.
- 2.4.2. puntuan nazioarteko erakundeekin elkarlana aipatu.
- 2.5.1.2. puntuan euskararen abantailak ez ezik, elebitasunaren abantailak landu.
- Prestigioa emateko euskal literatura sustatu. Adibidez, selektibitatean gaztelaniazko literatura sartzen da, euskaraz ez.
- Euskara irakasleen titulazioa: gaztelania emateko filologia behar da, euskara emateko nahikoa da EGA edukitzea. Parekatu.
- D ereduko batxilergoko ordutegia. Ikasleek gainerako ereduaren ikasleek baino 4 ordu gehiago dituzte astean.
- Didaktika landu, euskara irakasteko modua egokitu.
- Plangintzan jasotzen diren egitasmoak egiten hasi, hitzetatik ekintzetara (adibidez, 0-3 zikloan euskarazko eskaintza bermatu, Lanbide Heziketa...).
- 6.1.2.2. puntuan, hitzarmenak egiteko erakundeekin zerrendan Kontseilua gehitu.
- Euskara berezko hizkuntza dela jaso, ez hizkuntzetako bat.
- Lanbide Heziketa euskaraz egin ahal izatea bermatu.

- Baliabide didaktikoak euskaratzeko bitartekoak jarri (Lanbide Heziketan, NUPen...)
- Euskara ikasteko programak ezarri, ikasle guztiek euskara maila gutxieneko bat lor dezaten, gizarte kohesioa sustatzeko.
- Ikasle etorkinek euskara ikasteko baliabide gehiago jarri.
- Lanbide Heziketa ez formalean, Enplegu Zerbitzuaren bidez kudeatzen dena, eskaintza osorik gaztelaniaz ematen da. Euskaraz ere eskaini.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Vascuencearen Legea aldatu. Ez bada egiten, esparru guztiak baldintzatzen ditu. Zonifikazioa eta honen ondorioak aipatu behar dira
- Giza eta diru-baliabideak behar dira hau guztia garatzeko.
- Epeak finkatu behar dira, eta ebaluazioa definitu.
- 1.1.1.1. puntuan, “eskaintza nahikoa” esaten denean, zehaztu behar da.
- 1.1.2.2. puntuan, “Euskararen erabilera urriagoa den eremuetan” baino, “euskararen erabilera urria den eremuetan” behar luke.
- 2.1. puntuan A eredu ere aipatu beharko litzateke.
- Departamentuen borondateak eta gaitasunak zalantza eragiten dute.

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Gustura
- Parte-hartzailea
- Abiaturua
- Ametsa
- Aberasgarria
- Zaharrak berri
- Zalantza
- Lana
- Itxaropena
- Gaude
- Erronka handia
- Harrigarria

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (Sektore-bilera: HEZKUNTZA)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA		2	4	11
GAIAK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT		2	7	8
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA		5	7	5
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA	2	3	8	4
GIROA ATSEGINA IZAN DA			3	14
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA		3	6	8
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT	1	4	7	5
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU	1	1	10	5
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA	1	4	8	4
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU	1	3	7	6

EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK

- Ikusi behar da parte-hartzean egindako ekarpenak kontuan hartuko diren
- Hutsuneak
- Zalantza asko ditut borondate politikoa dela-eta... Buff... Vascuencearen Legea garrantzitsua da, ofizialtasuna behar da.